



Bizkaiko eta Gipuzkoako portuetan 2017tik 2019ra bitartean izozki-postuak jarri eta ustiatzeko baimenak esleitzeko prozeduraren oinarrien eta baldintzen agiria onartzen dituen Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2017ko martxoaren 6ko Ebazpenaren I. eranskina.

**BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO PORTUETAN 2017TIK 2019RA BITARTEAN
IZOZKI-POSTUAK JARRI ETA INSTALATZEKO JABARI-BAIMENEN
ADJUDIKAZIO-PROZEDURAREN OINARRIEN AGIRIA.**

BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO PORTUETAN 2017TIK 2019RA BITARTEAN IZOZKI-POSTUAK JARRI ETA INSTALATZEKO JABARI-BAIMENEN ADJUDIKAZIO-PROZEDURAREN OINARRIAK.

LEHENENGO OINARRIA.- PROZEDURAREN XEDEA

Prozedura honen xedea da Bizkaiko eta Gipuzkoako portuetan 2017tik 2019ra bitartean izozkiak saltzeko (berariaz baztertzen da beste xede bat izatea) 15 (hamabost) postu jarri eta ustiatzeko jabari-baimenak esleitzea.

BIGARREN OINARRIA.- KOKAPENA

Prozedura honetako postuak honako leku hauetan kokatu beharko dira:

BIZKAIA

0. BERMEO: liburutegiko izkinan. **(1. postua)**
1. ARMINTZA: iturriaren atzean. **(2. postua)**
2. ONDARROA: Calatrava zubiaren eta Arrigorri plazara sartzeko eskaileraren azpiko hegoaldeko dikearen (hondartzako kaia) hasieraren artean. **(3. postua)**
3. LEKEITIO: Hegoaldeko dikearen hasieran (apaizen kaia), karelaren ondoan. **(4. postua)**
4. ELANTXOBE: Portu kalean, Santi tabernaren aurrean, lurperatutako kontainerren parean, karelaren ondoan. **(5. postua)**

GIPUZKOA:

5. HONDARRIBIA 1. hondartza: Hondartzako izkinako estradosean, Iribarren pasealekuan, 1. biribilgunean. **(6. postua)**
6. HONDARRIBIA 2. hondartza: Hondartzako erdiko estradosean, 2. biribilgunean. **(7. postua)**
7. HONDARRIBIA 3. hondartza: Hondartzako bideratze-izkinako estradosean, 3. biribilgunean. **(8. postua)**
8. HONDARRIBIA ITSASOA: Madalena elizako izkinan, Matxin Arzus kalea eta Itxas-Etxea auditoriuma batzen diren lekuan. **(9. postua)**
9. DONOSTIA: Ijentea kalean, portuko ibilgailu-sarbidean, pibote hidraulikoen kontrolaren aurretik. **(10. postua)**

10. GETARIA: Malkorbe hondartzan, Salbamendu eraikinaren atzealdean. **(11. postua)**
11. GETARIA: Gaztetape hondartzan, hondartzan sartzeko aldaparen hasieran. **(12. postua)**
12. ZUMAIA: Santillana kaian, oinezkoentzako igarobideko aldaparen hasieraren ondoan. **(13. postua)**
13. DEBA: DEBA hondartzan, eskuineko bazterreko bideratze-dikearen hasieran. **(14. postua)**
14. MUTRIKU: “solarium” zabaldegian, Kantinaren albo batean. **(15. postua)**

HIRUGARREN OINARRIA.- ADMINISTRAZIOAK EMATEN DITUEN BALIABIDEAK.

1.- Postu bakoitzeko, gehienez, 6 m²-ko azalera duten jabari publikoko lursailak, jabari publikoko ondasuntzat hartzen direnak. Izozkiak saltzeko dira, eta berariaz baztertuta dago beste edozein erabilera (janariak edo edariak ematea).

2.- Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak ez du konpromisorik hartzen inolako zerbitzurik edo horniketarik emateko. Horren harira, energia elektrikoaren hornidura adjudikaziodunak kudeatuko du, eta haren kontura izango da instalazioa, kableak eta konexioak ezartzea, eta eragiten diren bestelako gastuak. Debekatuta dago babesik gabeko linea elektrikoak jartzea, bai airekoak bai lurrekoak.

3.- Adjudikaziodun bakoitzak egikaritze-xehetasuna proposatuko dio Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari, berariaz onar dezan. Hori dagozkion obra-lizentziak eta udal-jarduerak aurkeztu aurretik egingo da.

LAUGARREN OINARRIA.- POSTUEN EZAUGARRIAK.

Izozki-postuak ez du 6 m² baino gehiago izango, biserak zabalik egonda ere. Eta solairu bakarra izango du,

BOSGARREN OINARRIA.- ADMINISTRAZIOAK EMANDAKO INFORMAZIOA

Deialdiaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian sartu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek honako dokumentazio hau eskuratu ahal izango dute:

1. dokumentua: Oinarrien agiria.
2. dokumentua: Baimena emateko baldintza orokorren agiria.
3. dokumentua: Postuen kokapen-planoak.

SEIGARREN OINARRIA.- ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

1.- Eskaera aurkeztu ahalko dute jarduteko gaitasun osoa duten eta indarreko legediak eskatutako betebeharrak fiskal, laboral eta sozial guztiak ordainduta dituzten pertsona fisiko edo juridikoek.

2.- Prozeduran parte hartzeko eskaera aurkezten dutenek ordainduta izan beharko dute Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak egin dizkien likidazio guztiak.

ZAZPIGARREN OINARRIA.- PARTE HARTZEKO BERMEA.

1.- Eskaera aurkezten duenak 500 (bostehun) euroko gordailua sartu beharko du Eusko Jaurlaritzaren Diruzaintza Nagusian.

2.- Gordailu hori portu-aldeko jabari publikoko baimenaren eskaera aurkeztutzat jotzeko behar den bermea izango da.

3.- Atal honek aipatzen duen bermea esleipena ematen ez zaien interesdunei itzuliko zaie, esleipena egiten denetik astebeteko epean.

4.- Adjudikaziodunak aurkeztutako bermea gordeta egongo da baimena formalizatu arte; orduan, baldintzen agirian ezarritako kopurua eta forma dituen ustiapen-bermeak ordezkatuko du.

ZORTZIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA.

1.- Adjudikazio-prozeduran parte hartzeko eskaerak astelehenetik ostiralera aurkez daitezke, 09:00etatik 14:00etara, honako leku hauetan:

-Gipuzkoako Portuen Lurralde Zerbitzuaren bulegoetan (Intxaurrondo, 70, 2. solairua, 20015, Donostia)

-Bizkaiko Portuen Lurralde Zerbitzuaren bulegoetan (Elcano, 3, behe-solairua, 48011, Bilbo)

-eta Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren bulegoetan (Donostia-San Sebastián, 1-Lakua, 1-7. solairua 01010 Vitoria-Gasteiz),

Hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluekin bat etorritik.

2.- Prozeduran parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea **2017ko martxoaren 9tik 23ra bitartean** izango da, eta azken egun horretako hamalauetan (14:00) amaituko da.

3.- Eskatzaileak agiriak posta arruntez bidaltzen baditu, bidalketa-data egiaztatu beharko du posta-bulegoan, eta horiek postaz bidali dituela adierazi beharko dio Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari (aholkularitza juridikoko atalari), 945 019787 zenbakira telefaxa bidalita.

4.- Bi egintza horiek, hau da, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari agiriak bidaltzea eta bidali dituela adieraztea, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino lehen egin beharko dira.

5.- Bi baldintza hauek bete ezean, agiriak ez dira onartuko, aurkezteko epea (eguna eta ordua) amaitu ondoren jasotzen badira.

BEDERATZIGARREN OINARRIA.- ESKAEREN EDUKIA

1.- Pertsona bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du. Eskaera bakoitza postu baterako edo batzuetarako izan daiteke.

2.-Eskaerak gutun-azal itxi batean aurkeztuko dira, eta eskatzaileak edo haren ordezkariak sinatuko ditu.

3.- Gutun-azal bakoitzaren **kanpoaldean** izenburu hau agertu beharko da ongi ikusteko moduan: “IZOZKI-POSTUEN 2017-2019 ALDIRAKO ESLEIPENA”. Halaber, eskatzailearen izena agertu beharko da.

4.-Gutun-azal bakoitzaren **barrualdean** agiri hauek sartu beharko dira:

- a) Eskatera (horren inprimaki normalizatua agiri honi erantsi zaio).
- b) Eskatzailea pertsona fisikoa bada, eskatzailearen NANA edo, ordezkaria badu, ordezkariaren NANA eta notario-ahalordea.
- c) Eskatzailea pertsona juridikoa bada, enpresa eratzeko eta, halakorik bada, aldatzeko eskritura, dagokion Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta.
- d) Baimenaren ondorio diren betebeharrei aurre egiteko kaudimen ekonomikoaren egiaztagiria. Ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeko finantza-erakundearen adierazpenak aurkeztu beharko dira.
- e) Kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzeko, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela frogatzeko egiaztagiria emango dira, eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen. Atzerriko enpresek dagokien herrialdean jarduten gutxienez urte 1 daramatela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute.
- f) Parte hartzeko 500 (bostehun) euroko bermea eratu izana egiaztatzeko agiria “AUT. HELADOS -2017-2019” erreferentziarekin; han, gordailugilearen izena jaso behar da.
- g) Kontratatzeko debekurik ez duela egiaztatzen duen berriarazko eta erantzukizunpeko adierazpena. Adierazpen horretan, indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela aitortu beharko du prozeduran hautatua izan denak, jabari-baimena eman aurretik, eta betebeharrak hori ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharri kalterik egin gabe (eskaeraren inprimaki normalizatua sartu da).
- g) Atzerriko enpresen kasuan, Espainiako ordena guztietako epaitegi eta auzitegien eskumenaren mende jartzen direla xedatzen duen adierazpena, kontratutik zuzenean edo zeharka sortutako gorabehera guztietarako; kasua suertatuko balitz, eskaintzaileak legokiokkeen atzerriko jurisdikzioko foruari uko egingo liokeela ere jasoko du adierazpen horrek.

Gainera, jarduteko gaitasuna dutela, proposatutako jarduera gauzatzeko gaituta daudela eta ez dutela kontratatatzeko debekurik dioen adierazpena.

HAMARGARREN OINARRIA.- HAUTAPEN-BATZORDEA.

1.- Hautapen-batzordea Garraio Azpiegituren zuzendariak (presidentea izango da), Bizkaiko eta Gipuzkoako Obra Publikoetako Lurralde Zerbitzuko arduradunek eta Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoko arduradunak osatuko dute, bai eta Zuzendaritzako letradu batek ere (batzordearen idazkaria izango da).

2.- Batzordekideak beste batzuekin ordezkatu ahal izango dira, eta, horretarako, nahikoa da gertakari hori aktan jasotzea.

HAMAIKAGARREN OINARRIA.- ESKATZAILEEN ONARPENA

1.- Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, hautapen-batzordea Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren bulegoetan bilduko da eta aurkeztutako eskaerak irekiko ditu.

2.- Aurkeztutako agiriak kalifikatzeko, batzordearen presidenteak gutun-azalak irekitzeko agindua emango du, eta idazkariak agirien zerrenda ziurtatuko du.

3.- Eskabidean edo harekin batera derrigor aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat antzeman ez gero edo osorik ez badago, 10 egun balioduneko epea emango zaio eskatzaileari, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak errekerimendua jakinarazten dion egunetik aurrera, akats horiek zuzentzeko. Epea igaro, eta akatsak zuzendu ez badira, eskabidea baztertu egingo da.

4.- Batzordeak, aurkeztutako gutun-azaleko agiriak kalifikatu eta horien akatsak eta falta diren agiriak zuzendu ondoren, oinarrien agiriko baldintzekin bat egiten duten eskatzaileak zeintzuk diren zehaztuko du, eta onartuak edota baztertuak zeintzuk izan diren adieraziko du. Ez onartutakoen kasuan, erabaki hori hartu izanaren arrazoiak adieraziko ditu.

5.- Batzordeak eskatzaileei eska diezazkieke beharrezko ikusten dituen argibide eta datu guztiak.

HAMABIGARREN OINARRIA.- ESLEIPENA

1.- Zozketa egiteko lekua, eguna eta ordua eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta, nahi badute, bertaratzeko aukera izango dute. Han, esleipenen notario-zozketa egingo da ekitaldi publiko batean.

2.- Ekitaldiaren hasieran, batzordeak onartutako eskaerak eta ez onartutakoak jakinaraziko ditu. Azken horien kasuan, baztertzearen arrazoiak adieraziko ditu.

3.- Jarraian, baimenen esleipenen zozketa egingo da onartutako eskaeren artean. Prozeduraren xede diren postu guztiak banaka esleituko dira.

4.- Ekitaldiaren amaieran, presidenteak bertaratutakoei azalduko die erreklamazioak eta adierazpenak egin ditzaketela.

5.- Batzordeak Portuko Agintaritzari jakinaraziko dio egindako zozketaren emaitza.

6.- Portuko Agintaritzak hauetarako ahalmena du: aurkeztutako eskaeraren bat edo guztiak ez onartzeko, egokien deritzon eskaerari baimena esleitzeko, edo ez esleipenik ez emateko, aurkeztutako eskaeren artean interes publikoa guztiz asetzen duenik ez dagoela uste badu.

HAMAHIRUGARREN OINARRIA.- BAIMENA IZAPIDETZEA

1.- Hautatutako eskaerak baimenen emakidarako testu bategin honetan ezarritakoaren arabera izapidetuko dira: Estatuko Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzko Legearen testu bateginean, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoan.

2.- Ondorio horietarako, adjudikazio-prozedurarako eskaera aurkezteak berekin dakar eskatzaileak agiri honen eta baimenaren emakidarako baldintzen agiriaren oinarriak oso-osorik eta baldintzarik gabe onartzen dituela.

HAMALAU GARREN OINARRIA.- GASTUAK

1.- Adjudikazio-iragarkietatik sortutako gastu guztiak adjudikaziodunaren kontura izango dira. Bereizi ezin daitezkeen gastuak proportzionalki banatuko dira adjudikaziodunen artean.

2.- Gastuen zenbatekoa adjudikaziodunei jakinaraziko zaie.

HAMABOSGARREN OINARRIA.- IZOZKI-POSTUAK USTIATZEN HASI AURREKO BETEBEHARRAK.

Adjudikazioaren ebazpena jakinarazten den hurrengo egunetik hamabost (15) egun baliouduneko epean, postu bakoitzerako hautatutako eskatzaileak agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan aurreten alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria edo zerga horren azkeneko ordainagiria, biak ere jatorrizkoak eta konpultsatzeko kopiak, eta gainera, geroztik zerga horretan bazarik eman ez duela esaten duen erantzukizunpeko adierazpena. Enpresa ez badago adierazpen edo agiri horiek aurkeztera behartuta, horri buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du.
- b) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak
- c) Enpresa hornitzaileen (ura, elektrizitatea, saneamendua, telekomunikazioak) harguneen baimenak.
- d) Prozedura iragartzeko gastuen zenbatekoaren ordainketa-frogagiria.

HAMASEIGARREN OINARRIA.- JURISDIKZIOA.

Agiria interpretatzean edo betetzean sor daitezkeen auzigaiak Garraio Azpiegituren zuzendariak ebatziko ditu. Haren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke, eta Eusko Jaurlaritzaren Garraioetako sailburuordeak ebatziko du.

HAMAZAZPIGARREN OINARRIA.- DATUEN BABESA.

1.- Baimen bat esleitzen zaien eskatzaileek emandako datu pertsonalak “Portu-aldeko jabari publikoko emakidak eta baimenak” izeneko datu pertsonalen fitxategian sartuko dira, hala agintzen baitu Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak 5. artikuluan. Fitxategi horren arduraduna Garraio Azpiegituren Zuzendaritza da. Era berean, jakinarazten da datu horiek jasotzearen eta gordetzearen helburua baimenak kudeatzea dela, eta informazioaren hartzailea aurrez apatutako zuzendaritza dela.

2.- Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak Garraio Azpiegituren Zuzendaritzan baliatu ahal izango dira (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

ERANSKINA
ESKABIDE-EREDUA

Izen-abizenak:

Herria:.....Kalea:.....
.....NAN:.....Ordezkatzen
duen enpresa (bere kabuz ari ez bada):.....
.....Enpresak helbidea
duen herria:
Kalea:..... PK Tel.: eta
IFK:

AITORTZEN DUT

1.- Ezagutzen dudala honako ebazpen hau: Ebazpena, 2017ko otsailaren 23koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, Bizkaiko eta Gipuzkoako portuetan 2017tik 2019ra bitartean izozki-postuak jarri eta ustiatzeko baimenak esleitzeko prozedura hasteko dena.

2.- Era berean, Portu Agintaritzak agiri hauek eman dizkidala eta oso-osorik eta berariaz onartzen ditudala: oinarrien agiria, baldintzen agiria eta baimena osatu behar duten gainerako agiriak.

3.- Aipatutako adjudikazio-prozedurari dagokionez, izozki-postu hau/hauek jartzeko baimena esleitzea nahi dudala: **zenbakia**_____

4.- Aitortzen dut kontratatzeko debekuaren inongo prozeduratan sartuta ez nagoela eta indarreko xedapenek ezarritako zergak ordaindu ditudala eta Gizarte Segurantzari ordaindu diodala. Prozeduran hautatutako eskatzaileak betekizun hori egiaztatzeko ziurtagiria administrazio-baimena eman baino lehen aurkeztu beharko du.

.....(e)n, 2017ko(a)ren(e)an

Sinatuta:

